



Pausoka Elkartearen aniztasun funtzionala duten seme-alaben gurasoek osatzen dute. Egungo osasun-ereduek, hezkuntzak eta gizarte-zerbitzuek ez dituzte haien beharrak asetzen eta, horregatik, errehabilitazio-zentro integral bat irekitzeko elkartu ziren. Haien erronka aniztasun funtzionala duten haurrentzat kalitatezko errehabilitazio terapia eskaintzea da. Terapiak emateaz gain, gurasoentzako eta familientzako laguntza sarea osatzen dute.

03 PAUSOKA Elkartearekin solasean:

—Kaixo Maier. Zer moduz?

—Ondo. Eta zu?

—Ederki!

Pausoka elkarteko kide zarela jakin dut eta bertan osasun eta hezkuntza sistemak asetzen ez dituen beharrei erantzuteko bidelaguntza jasotzen duzuela.

—Hori da.

—Eta hori zer da, jarduerak denontzat egokitzea?


—Ez, Eli, egokitu behar badira ez dira denontzat.

—Arrazoi duzu. Baina, ez da erraza izango guztiontzat pentsatutako ekintzak aurkitzea...

—Badakizu, Eli, gauza gehiago daudela elkarrekin egin ditzakegunak, elkarrekin egin ezin ditugunak baino?

—Zu bai zu saltseroa, Maier!

**ELKARREKIN
ELKARRENTZAT
SORTUKO DITUGUN
JOLASETAN
JOLASTU**



04 ELKARREKIN JOLASTEN

Musika: Xabier Zabala

Hitzak: Eli Pagola Apezetxea

Ahotsak: Sergio (Patzuko) eta Ainhoa Larrañaga

Belazeetan kilkerren
bila gabiltzala
ze ordu den ahaztu,
ilea berdez tintatuz
ispilu aurrean
punky eran orraztu,
meriendan gusanitoak,
patata frijitu
eta zukua nahastu
nahi al duzu tribu txiki
bateko hizkuntza
sekretuan solastu
elkarrekin elkarrentzat
sortuko ditugun
jolasetan jolastu.

Handitzean makarroiak
gosaldu ahalko
ditugula amestu,
kolore desberdineko
kaleko baldosak
zapaltzea saihestu,
begiak itxiz ikusi,
geldirik dantzatu,
barrurantza abestu,

nahi al duzu tribu txiki
bateko hizkuntza
sekretuan solastu
elkarrekin elkarrentzat
sortuko ditugun
jolasetan jolastu.

Txistu soinurik ez duen
haize ufadaka
gogotik egin txistu,
orain arte ilun zeuden
pasabideetan
argi zuriak piztu,
besoak zabaldu eta
superbotereak
ditugula sinistu,
nahi al duzu tribu txiki
bateko hizkuntza
sekretuan solastu
elkarrekin elkarrentzat
sortuko ditugun
jolasetan jolastu.

Hodeiek herensugeek
bezalako forma
daukatelako poztu,
txokolatego boladun
izozkiarekin
mihi punta izoztu,
gure ezkutalekura
nondik iristen den
gordetzea adostu
nahi al duzu tribu txiki
bateko hizkuntza
sekretuan solastu
elkarrekin elkarrentzat
sortuko ditugun
jolasetan jolastu.